

ZIGORRAK.

ONDORIO LOGIKOA?

KASUAREN DESKRIBAPENA

Irakaslea klasera sartzen da eta gelako mahai eta aulki guztiak arbelaren kontra daude, torre moduko bat osatuz. Ikasle guztiak barrez, pareko paretaren kontra, eskuak gurutzatuta, irakasleari begira. Irakaslea, klasetik ateratzen da eta zuzendariarengana joan zen. Zuzendariarekin batera bueltatu zen gelara. Zuzendariak egundoko bronka bota zien ikasleei eta aste osoa, errekreo gabe zigortu zituen. Zuzendariak alde egin ondoren, bakoitzak bere mahai eta aulkiak lengo lekuetan ipini zituzten eta geratzen zen denboran klasea normaltasunez eman zen.

Proposatutakoa

Klasea, lurrean eserita eman beharko da, baina mahaiak eta aulkiak ez egoteak ez dezala eragotzi klasea ematea. Baina neurri hau ez dugu nahikoa ikusten berriro ez dela gertatuko ziur geratzeko, beraz, ondorio logiko bat aplikatzea egokia deritzogu. Adibidez, klase horretan ariketa bat egingo da eta klase amaieran jaso egingo. Ariketak, notarako balioko du, txukuntasuna ere baloraturaz.

- 1.- Balora ezazu zein neurri mota erabili diren kasuaren deskribapenean
- 2.- Proposatutakoa ondorio logikoa al da?. Erantzuna arrazoitu

Taula

Komunikazio ez-hitzezkoa erabili	Jokaera kontrolatu edo inhibititu norbera bertan egonez, begirada erabiliz atzera eragiteko
Komunikazioa errazteko estrategiak erabili	Gelditu dadila eskatu, araua edo espero dena gogorarazi estrategia asertiboen bidez (errepikapena...)
Urrezko araua	Urrezko araua erabili (elkarrekikotasuna): ez egin besteei zeuretzat nahi ez zenukeenik; enpatiaren bidez: nola sentituko zinateke baldin eta...?
Jokaera desagokitik desbideratu arreta	Umorea erabiliz, ustekabea
Bestelako jokaera bat saritu, jokaera desagokiarekin bateragarri ez dena (aurrez)	Pizgarriak, protagonismoa, erantzukizunak
Zigor positiboak	Elkarrekikotasun zigorrak: Ondorio logikoak, ordaina...
Erreparazioa	Kalte edota minaren erreparazioa

